

Los palistas profesionales se organizan de la mano de ELA para negociar un convenio con Innpala

Entre otras cuestiones, reivindican el complemento por baja laboral y que la empresa asuma el gasto de material y que respete el periodo vacacional

ELA ha registrado una solicitud de reunión en la empresa Custom Masevents (Innpala) con el objetivo de iniciar una negociación que mejore las condiciones laborales de los pelotaris profesionales de pala. Este colectivo (10 profesionales que juegan en Bilbo) se ha organizado sindicalmente para mejorar sus condiciones laborales y para denunciar la precariedad en el sector. Por ello, reivindican la negociación de un convenio colectivo.

La plantilla, entre otras cuestiones, reivindica mejoras salariales, condiciones mínimas para todos los pelotaris, cobrar al 100% las incapacidades temporales, que se respete el periodo vacacional, que la empresa costee el material de trabajo como las palas, asistencia médica en los partidos, que la empresa costee los gastos de kilometraje o parking... En definitiva, regular un marco colectivo que mejore y dignifique la actividad de estos deportistas profesionales.

Para este objetivo, los pelotaris han decidido organizarse colectivamente y solicitar una reunión a la empresa para iniciar la negociación. Dejan claro su voluntad de negociación y su intención de buscar una solución a su situación laboral.

ELA denuncia la situación precaria de estos pelotaris profesionales y apoya la decisión de la plantilla de organizarse. ELA insiste en que la organización colectiva es la única vía para combatir la precariedad, también en el deporte profesional. Por todo ello, ELA ha solicitado una reunión con Innpala.

Bilbo, 25 de febrero de 2025.

Palista profesionalak ELAren eskutik antolatu dira Innpalarekin hitzarmen bat negoziatzeko asmoz

Besteak beste, laneko aldi bateko ezintasunen osagarria eta enpresak materialaren gastua bere gain hartzea eta oporraldia errespetatzea aldarrikatzen dute

ELAk bilera eskaera erregistratu du Custom Massevents (Innpala) enpresan, palako pilotari profesionalen lan baldintzak hobetuko dituen negoziazioari ekiteko asmoz. Kolektibo hau (Bilbon jokatzeko duten 10 profesional) sindikalki antolatu da euren lan baldintzak hobetzeko eta sektoreko prekaritatea salatzen. Hori dela eta, hitzarmen kolektibo baten negoziazioa aldarrikatu dute.

Plantillak, besteak beste, soldata hobekuntzak, pilotari guztientzako gutxienezko baldintzak, aldi baterako ezintasunak %100ean kobratzea, oporraldia errespetatzea, enpresak laneko materiala – palak, esaterako– ordaintzea, partidetan laguntza medikoa ematea, enpresak kilometraje edo parking gastuak ordaintzea... Azken finean, kirolari profesional horien jardura hobetu eta duinduko duen esparru kolektiboa arautzea.

Helburu horretarako, pilotari kolektiboki antolatzea erabaki dute, eta enpresari bilera bat eskatu diote negoziazioari ekiteko. Argi utzi dute negoziatzeko borondatea dutela eta euren lan egoerari irtenbidea bilatzeko asmoa dutela.

ELAk pilotari profesional hauen egoera prekarioa salatu du eta langileek antolatzeko hartutako erabakia babestu du. Prekaritateari aurre egiteko bide bakarra antolakuntza kolektiboa dela azpimarratu du ELAk, baita kirol profesionalean ere. Horregatik guztiagatik, ELAk bilera eskatu du Innpalarekin.

Bilbon, 2025. urteko otsailaren 25ean